

HISTORIAKO GRADUA

1. MAILA



ANTZINAROKO
GIZARTEAK
ETA KULTURAK

PELOPONESOKO GERRAK

| Irati Arbila, Ibon Artaza eta Irati Aranbarri |

AURKIBIDEA

1. Sarrera	3.orr
2. Kokapena.....	3.orr
3. Partaideak.....	3.orr
4. Kronologia-etapak.....	4.orr
5 .Testuingurua.....	4.orr
6. 30 urteko bakearen haustura.....	5.orr
7. Arkidamoren gerra.....	5.orr
8. Niziasen bakea.....	6.orr
9. Espedizioa Siziliare.....	6.orr
10. Joniako gerra.....	7.orr
11. Atenasen erorketa eta gerraren ondorioak.....	8.orr
12. Bibliografia.....	9.orr

SARRERA

Peloponesoko Gerra K.a. 431 eta 404 urteetan Atenasek zuzendutako Deloseko Liga, Esparta buru zuen Peloponesoko Ligaren aurka, greziar munduaren nagusitasuna lortzeko helburuarekin eman zen gerra izan zen.

KOKAPENA

Atenas Grezia Kontinentalaren hego-ekialdean dagoen Atica izeneko eskualdearen gune historiko nagusia izan zen. Penintsula harritsu da, triangulu-formakoa, Egeo itsasoan sartzen dena. Eskualde menditsua izan arren, hiru lautada garrantzitsu ditu. Eleusis, Atenas eta Maratoia. Atenasko portua Pireo zen. Honek bere aliatuekin, Delosko Liga osatu zuen. Liga honetara Itsasertzeko hiriak eta Egeo itsasoko uharteak gehitu ziren. Liga honetako kide izatea borondatezkoa zen hasieran, baina laster Atenasek hiriak bertan mantentzera behartu zituen, eta aliantza hori Atenasen nagusitasun modu bihurtu zen, Egeo Itsaso osoa kontrolatzeraino.



eskualdeko Tebas kasu.

Esparta berriz, Peloponesoko penintsulan zegoen kokatua, Eurotas ibaiaren ertzean, Taigeto eta Parnon mendien artean. Espartak, bere aldetik, Peloponeso eta Itsaso Jonikoaren kontrola mantentzen zuen, honen bitartez Italia eta Mediterraneo Mendebaldearekin merkataritza egiten zuelarik. Atenasek bere aliatuak zituen moduan, Espartak ere bereak zituen: Peloponesoko Liga aliantza militar bat zen, non penintsulako estatu guztiak parte hartzen zuten, Argos eta Akaia izan ezik, baita kanpoko hiri batzuk ere, Beozia

Bestalde, gerra hau hiru eszenatoki desberdinetan eman zen:

Batetik, Hélade bera, Peloponeso eta Atika lehorreko zein itsasoko liskarren eszenatoki bezala hartuta. Bestetik, "Magna Grezia", hau da, Italiako hegoaldea. Eta amaitzeko, Egeoko iparraldea, Traziako eta Kaltzidikako koloniek, Asia Txikia eta Helespontorekin batera.

PARTAIDEAK

Atenas:

Grezia klasikoko garaian kokatu behar gara, Periklesen garaian hain zuzen ere. Atenasen demokrazia zegoen, baina ez gaur eguneko demokrazia bat; izan ere esklaboak zeuden eta gainera emakumearen ordezkapena bizi-publikoan ia nulua zen. Periklesekin eman zen demokraziaren garapen osoa. Honek, beste neurri batzuk aldarrikatu zituen, hala nola kargu publikoak betetzeagatik ordainsaria, ordura arte aristokraziaren esku zeuden gobernu-arazoetan herriari aktiboki parte hartzeko aukera eman ziotenak. Bestalde, Ekklesia bat zegoen. Hau, Atenasko demokraziaren biltzar nagusia zen. Besteak beste, batzarrak zuen azken hitza Atenasko legeriari, gerra-adierazpenei, bakearen sinadurari, estrategia militarri, strategoen (jeneralen) hautaketari eta beste ofizial batzuei dagokienez. K. a. V. mendean zehar, Atenas heleniar zibilizazioaren erdigune bihurtu zen, Mendebaldeko historia kultural eta

intelektualeko figura garrantzitsuenetako batzuk hartuz. Eskilo, Aristofanes, Euripides edo Sofokles bezalako antzerkigileek, Sokrates, Anaxagoras edo Protagoras bezalako filosofoek, edo Herodoto edo Tuzidides bezalako historialariek, gutxitan iritsitako mailara igo zuten Atenasko kultur horizontea.

Esparta:

Atenasen ez bezala, ez zuen sistema demokratiko batek gobernatzen, oligarkiak baizik, hau da, gudarien elite baten gobernuak. Espartako gobernuaren erakunde nagusiak Batzarra ("Apella"), Zaharren Kontseilua ("Gerusia") eta urtero hautatutako 5 eforo edo magistratu izan ziren, horiek baitziren benetan boterea zutenak. Eforoak konstituzioaren zaindari bihurtu ziren, eta Apellaren (batzarraren) buru ziren. Funtzionarioak eta iloten (esklabuen) menpe zeuden komunitateak kontrolatzen zituzten. Atzerriko enbaxadoreei harrera egiten zieten, haurren heziketa zaintzen zuten, erregeen jarduna gainbegiratzen zuten, atxilotu eta epaiketara eramane zituzketenak. Herriko polizia gisa ere jarduten zuten, erregeei gerrara laguntzen zieten eta unitate militarrik bidali zituzketen. Bestalde, Espartan hiru klase sozial zeuden:

1. Espartarrak: Klase pribilegiatua ziren, eta diziplina militar eta politikoa jasotzen zuten. Espartarra izateko hiru baldintza bete behar ziren: guraso espartarren semea izatea; syssition batean izena emanda egotea (elkarrekin bazkaldu eta ekarpen bat ordaintzen zuten pertsona-taldea) eta espartarren hezkuntza eta diziplinari men egitea.
2. Periakoak: Periferian artisautza, nekazaritza eta merkataritzan ziharduten biztanleak ziren. Gizon libreak dira, herritartasunik ez zutenak, eskubide politikorik ez zutenak, baina eskubide zibil batzuk bai.
3. Ilotak: Esklaboak ziren. Espartako Estatuarenak ziren, eta bere zerbitzuak behar zituzten herritarrei ematen zizkien. Edozein laneko jarduera egin zezaketen. Ez zuten inolako eskubiderik.

KRONOLOGIA- ETAPAK

Peloponesoko Gerrak, K.a 431-404 urteen artean greziar munduan gertatu ziren gerragatazkek dira. Hain aldi luzea hobeto ulertzeko, hainbat fasetan banatzea proposatzen da :

- Arkidamoren gerra: K.a 431-421 Niziaseko bakearekin amaitzen den aldia, statu quo-a berrezartzen duena.
- Siziliako gerra edo Siziliara espedizioa: K. a. 415-413.
- Dezeliako edo Joniako gerra: K. a. 413-404, Atenasko setio eta kapitulazioarekin eta Laurehun gobernuarekin amaitzen da.

TESTUINGURUA

Kortziak, egungo Korfuak, Epidamnoseko kolonia zuen Iliriko kostaldean, Dyrrhachium erromatarra (gaur egungo Durazzo), bere garaian Korintok eta Kortziak elkarrekin sortua. 436an istiluak sortu zituzten, demokratek aristokratak kanporatu zituztelako. Aristokratek laguntza eskatu zieten iliriarrei herrira itzultzeko. Bere estuasunean, alderdi demokratikoa Kortziara joan zen, eta, enbaxadorearen ezezko batez kaleratuak izan zirenez, Korintora joan ziren. Izan ere, Kortziakolonia harroa umiliatzea espero zuen, bere itsas indar gero eta handiagoaren jakitun, metropolitik askatua baitzen.

Epidamnoko gatazka Korintoren eta Kortziaren arteko gerra bihurtu zen. Lehen kanpaina, 435ean, Kortziaren garaipenarekin amaitu zen, eta Korinto, peloponesoar konfederatuen laguntzarekin, beste erasoaldi baterako armatu zenean, uharteko biztanleek Deloseko Ligan sartzea eskatu zuten. Atenasek Itunean sartzeko eskubidea defendatu zuen arren, mundu guztia jabetu zen horrek sortuko zituen arazoez. Hala ere, Periklesek uste zuen Atenasi beharrezkoa zitzaiola Kortziarren itsas indar handiarekin aliatzea, Itsaso Jonikoa menderatzeko eta Italia eta Siziliarekiko

merkataritza harremanak ziurtatzeko. Greziaren egoera politiko orokorra are larriagoa bihurtu zen bigarren gatazka baten ondorioz, Potidearena, antzinako korintoarren kolonia, aspaldidanik Atenasen menpe zegoena. Korintoarrek potidearrak konbentzitu zituztenean Atenasen aurka altxa zitezten, ezinikusia sortu zen. Korintok, ahulegi, Espartara jo zuen eta Atenasi gerra aitortzea lortu zuen.

30 URTEKO BAKEAREN HAUSTURA

Lehenengo Peloponesoko gerra “30 urteko bakea” deritzonarekin amaitu zen. Atenasek Peloponesoko jabetzak utzi behar izan zituen. Haien artean portuak: Nisea, Pegas, Trecen eta Acaya Argolidan baina, Naupactok bere eskuetan jarraitu zuen. Hitzegindako “30 urteko bakeak” 13 urte bakarrik iraun zituen.

Bi ligen arteko erlazioa baretu zen baina, sinatutako itun hau askotan zalantzan jarri zen bi ligen arteko gertaerengatik. Gerra eragin zuena bi ligen partaideen arteko liskarrak izan ziren, ondoren Atenas eta Espartaren konfrontazioa ekarriko zuena. K .a. 432 urtean Atenasek Potideako polisari eraso egin zion (Korintoren kolonia zena). Honez gain, Atenasek Megara hiriarri, Espartaren aliatuari, zigor komertzial batzuk jarri zizkion eta Espartak Atenasek ituna apurtu zuela aldarrikatuz gerra deklaratu zion.

Bi bandok borrokatu zuten: Peloponesoko ligak (Esparta buruan zuena), Esparta kokatuta zegoen penintsulako polis gehienez osatua zegoen. Partaideak: Esparta, Argos, Corinto, Elis eta hainbat gehiago.

Eta Deloseko ligak (Atenas buruan zuena) Gerra medikoen ondorioz sortu zena. Partaideak: Atenas, Tracia, Helesponto, Jonia eta hainbat gehiago.

Bai Esparta eta Atenaseko papera beraien ligetan hegemonikoa zen, hau da ligen buru ziren.

ARKIDAMOREN GERRA

Lehen etapa honetan Peloponesoko ligako partaideak Atica-ko penintsulara joan ziren beraien “Gerra Arkidamikoa” bezala ezaguneko estrategia martxan jartzera (Arquidamo II-a erregeagatik izendatua). Atenas inguratzen zuten lurak hartu nahi zituzten hauek inguruko lurretatik lehengai eta janaririk ez lortzeko. Periklesek, Atenastar lider ezagunak bazekien ezinezkoa zela Espartarren aurka lurrean aritzea. Atikaren inbasio aurreikusiz bertako biztanleak Atenasera mugitu zituen. Atenas arresituta zegoen eta benetan zaila zen erasotzea. Atenastarrak itsasorako bidea edukitzen jarraitu zuten eta setioan ez zuten asko sufritu.

Periklesen estrategia ez zen bakarrik hau, Deloseko ligaren flota garrantzitsua erabili zuen Peloponesoko kostako ondasunak erasotzeko, horrela Espartar aliatuen flota suntsituko zuen.

Lehen etapa honetako konfrontazioak mugatuak izan ziren. Espartarrak ezin zutelako Atenaseko arresiez beste sartu eta Deloseko ligak bakarrik itsasoz erasotu zuen.

Periklesek ezin izan zuen aurreikusi k.a 430 urtean Atenasen peste bat zabaldu zen, ziuurrenik kanpotik janaria ekartzen zuten itsasontziek ekarria. Toki gutxian errefuxiatu asko zeudenez azkar zabaldu zen eta milaka pertsona hil ziren, haien artean Perikles (k.a.




429 urtean) Espartarrak plaga honen beldur zirenez Atikaren inbasioa abandonatu zuten.

Periklesen heriotzaren ondoren Atenastarrak defentsa teknika utzi eta izaera erasotzaileago bat hartu zuten. Demostenesek lider postua hartu zuen eta Atenastarrak garaipen txiki batzuk izaten hasi ziren (k.a. 425 urtean Pilos eskuratu zuten) Espartarren aurretik jarriz. Hala ere, Atikan desgaste handia nabaritu zen, lursailak abandonatuak izan baiziren eta gizartea nekatuta zegoen. Brasidasek (lider Espartarrak) aliatuen ejerzitoa bildu zuen eta Atenaseko puntu kritiko batera jo zuen, Anfipolis koloniar, hemen hainbat mehatze zeuden zilarra eskuratzeko eta gerran erabiltzeko. Tucídides (general atenastarra) exiliatua izan zen Anfipoliseko porrotatik.

NIZIASEN BAKEA


Ondorengo batailetan Brasidas eta Cleon hil zituzten. Espartak eta Atenasek tregua bat firmatu zuten k. a 421 urtean. Nicias negoziazioak aurrera eraman zituen Atenastarra izan zen, Plistoanacte espartako erregearekin negoziatu zuen. Bake honek 6 urte inguru iraun zituen. Espartarrak ez zuten bakea hautsi nahi baina beraien aliatu batzuk iraultza nahi zuten.

K.a. 418 urtean Mantineako bataila eman zen, Esparta eta bere aliatuak Argos eta Atenasen aurka aritu ziren. Bataila hau Greziar lurraldean Peloponesoko gerran eman zen baita handiena izan zen. Bataila hau Espartak irabazi zuen eta Peloponesoko ligaran bere hegemonia berrezartzea lortu zuen.



ESPEDIZIOA SIZILIARA

Bi urte geroago, konfliktoa Siziliako irlara lekualdatu zen Sirakusaren aliatu ziren Selinontetarrek Segesta erasotzearen ondorioz. Gogorarazi behar da, K.a. 424ko Gelako kongresuan, Sirakusa eta Atenasen alde zeuden herrien arteko gatazkak geldiarazi zirela. Elimioak, Siziliar zonalde horretako herritarrak, Atenasi laguntza eskatu zioten babesa lortu nahian. Atenastarrek bi arrazoi nagusi izan zuten eskaera hau onartzeko.



Alde batetik, Siziliatz jabetzeko aukera ezin-hobe iruditzen zitzaion. Beraien ideologia espansionistarekin jarraituz, mediterranean zuten kontrola areagotuko litzateke irla bereganatuz gero. Bestalde, Altzibiadesen politika demagogoak berebiziko pisua izan zuen erabakia hartzerako orduan. Altzibiadesek, orduko estratega eta aristokrata

boteretsuenetako bat, Atenastar gizartea konbentzitzea lortu zuen Sizilian botere ekonomiko handia lortuko zutela sinestaraziz.

Azkenean, espedizio honetarako, Antzinako Greziar historiako flotarik handienetako bat prestatu zuten: 134 gerraontziz eta 32.000 gizon inguru, hauek Nizias eta Lamakos buru izanik. Gainera, hauekin batera zenbait merkatal itsasontzi itsasoratu ziren onura ekonomikoak lortu nahian.

Igerlariak zorte ona opatzen zuten bidaiari, jainkoen desira plan hau aurrera eramatea zen, baina egoerak ustekabeko bira bat izan zuen. Goiz batean Atenaseko hirian zeuden Hermesen estatua batzuk apurturik agertu ziren. Estatua hauek hiriko zenbait tokitan aurkitzen ziren Hermes jainkoaren errepresentazio biluziak ziren. Merkataritza eta bidaien jainkoa izanik, seinale txarra suposatzen zuen espedizioarentzat.

Altzibiadesek zenbait arerio zituen politikaren arloan eta hauek krimen hau leporatu zioten bere boterea murriztu nahian. Altzibiadesi itsasoratzen utzi zuten baina, Sizilian plana aurrera eramateko zeudela, Atenasera deitua izan zen sakrilegioz salatuta. Hau ikusita, Espartara ihes egitea erabaki zuen hauen agindupean jarriz. Bitartean, Atenasen, heriotza-zigorrrera kondenatu zuten errebeldiagaitik.

Espartarrak, Altzibiadesek emandako informazioaz baliatuz, bi eraso handi planteatu zuten Atenasen aurka. Lehenik eta behin, Gilipo jenerala eta zenbait gerraontzi bidali dituzten Sirakusara Atenastarren aurka lagundu nahian. Ondoren, Atikako iparraldean blokeo bat ezarri zuten Atenasen menpean zegoen zilarrezko meategi bat geldiaraziz eta hauen finantziazioa oztopatuz.

Espedizioa porrota itzela bukatu zuen. Atenasen flota Sirakusan harrapatuta gelditu zen, buruzagiak exekutatu zituzten eta bizirik iraun zutenak giltzapetuak izan ziren Sirakusako harrobietan. Atenasen galera gutxi gora-behera 100 gerraontzi eta 30.000 gizonetara izan zen. Gainera, Atenasera gerraren errefuxiatuak etortzen ziren arabera, krisialdi sakon batean barneratu ziren finantziario eta janari eskasagaitik.

JONIAKO GERRA

Siziliako porrotaren berriak Asia Txikira arte heldu ziren, Pertsiera arte zehazki. Altzibiadesek gomendaturik, Espartak bere gerraontziak utziko zizkion Pertsieri diru truke eta flotak finantziario handia lortuko zuen Atenasen aurka joateko. Hala ere, Altzibiadesek ez zuen Esparta laguntzen jarraituko denbora gehiagoz. Espartako Agis II erregearen emaztearekin oheratu eta gero, Pertsiera ihes egin zuen bertako satrapa batzuen pean jarriz.

Pertsiarrekin zegoela, Atenastarren barkamena lortzeko asmoz, Espartarrei finantziarioa murrizteko gomendatu zien satrapei. Altzibiadesen arabera, Heladeko bi herriak euren artean suntsitzea komeni zitzairen eta bandoz aldatuz joan beharra zuten noizean behin. Honek Espartar flota desmotibatzen bukatu zuen, Atenasi beharrezkoa zuen denbora emanez indartzeko.

Altzibiadesek, Espartarren aurka laguntza eman izanaren argudioarekin, Atenastar flotaren lider jartzea eskatzen du eta armada berehala honen agindupean jartzen da. Bera buruan izanik, Atenas garaipenak lortzen hasi eta Espartarrek bakea eskatzea bultzarazten du. Honen aurrean, Kleonek, orduko Atenaseko pertsonai boteretsuena politikan, proposamena deuseztatzen du bere ideologia demagogoa dela eta.

Espartak negoziazioak berrartzen ditu Pertsiarekin, hauek euren urrea mailegatuz Asia Txikiko lurraldeak berreskuratzearen truke. Finantziario ia agorrezina zuen flota honen aurrean, Lisandro jeneral trebea jarri zuten. Altzibiades eta espartar jeneralaren arteko batailak gerraren zati honetako ikusgarrienak izan ziren.

Altzibiadesen porrot batek bere erreputazioa murriztu zuen Atenasen eta, bere arerio politikoei, armadaren burutik kendu zuten. Bere aldentzea oso erabakigarria izan zen gerran eta hau laster ikusi ahal izan zuten, Lesbosen portuan Atenastar flota harrapatua gelditu baitzen.

Atenasek bere flota berreraiki eta garaipen bat lortu zuten Lesbosen. Espartarrek bakea sinatzea proposatu zuten, baina hau deuseztatua izan zen berriz ere Atenasen partetik. Lisandrok ez zuen erabaki hau barkatu eta gerra Dardanelora mugiarazi zuen, bertan blokeo bat ezarri zuen Itsas Beltzetik zetorren garia pasatzen ez utziz. Janari eta errekurtsio falta gero eta nabariago zen Atenasen.

Altzibiadesek, Atenasen egoera larria ikusita, armadaren buru bezala berrezartzea eskatu zuen baina ez zioten jaramonik egin. Bitartean, Lisandrok, kolpe zital bat eman zuen Atenastar flota ia osoa Egespotamon harrapatuz. Porrot honekin, Atenas itsas potentzia izateari utzi zuen.

ATENASEN ERORKETA ETA GERRAREN ONDORIOAK

Etsaiarekin behin betikoz bukatzeko asmoz, Lisandrok gosez setiatu zuen Atenaseko hiria.

Gosez hildakoak areagotzen hari zirela, Atenasek ez zuen izan beste biderik eta kapitulatu behar izan zuten. Bakea sinatzeko asanbladan, Espartarrak gain, Korintoarrak eta Tebastarrak parte hartu zuten. Azken bi hauek Atenas guztiz suntsitzea eskatzen zuten baina Espartarrek ez zuten utzi, ez zitzairen egokia iruditzen Heladea hainbestetan salbatu zuen hiriarekin akabatzea.

Asanblada horretan zenbait zigor ezarri zitzaizkion Atenasi. Atenastarrek bere harresia bota beharko zuten, beraien flota ia guztia entregatu eta Espartari militarki laguntzera behartuta egongo ziren. Atenasen erorketarekin batera, Deloseko Liga disolbatu zen eta Esparta Heladeko hiri nagusia bihurtu zen.

Ondorio ekonomikoen aldetik, Pertsiarekin zorra izugarriak izan zituzten urrearen mailegua dela eta. Zor hauek Heladeko pobrezia areagotu zuten eta errekurtsioen eskasia oso larri zen. Gainera, krisi ekonomiko honetaz gain, krisialdi moral, politiko eta ideologiko batean barneratu ziren Espartarrek boterea lortu eta gero. Azkenik, Atenasen flotaren murrizketa dela eta, aipagarria da pirateria ere asko areagotu zela Mediterraneo itsasoan.

BIBLIOGRAFIA

- Fernández, F. (1989). *La guerra del Peloponeso: Historia del mundo antiguo 25. Grecia* (1º edizioa). Madril: Ediciones Akal, S.A.
- Grimberg, A. eta Svanstrom, R. (1973). *Historia universal Daimon: Grecia* (1º edizioa). Madril: Daimon.
- Nack, E., Wägner, W. eta Payarols, F. (1959). *Grecia: El país y el pueblo de los antiguos helenos* (1º edizioa). Bartzelona: Labor.